

**LIBURUAK**

**Izenburuak:** ‘Dragoi urdin bat’, ‘Saltoka ibiltzen zen pilota bat’, ‘Hargina eta Laminakua’, ‘Kuku erloju bat’, ‘Ipotx txiki-txiki bat’, ‘Urtemuga-opari bat’, ‘Pencil izeneko arkatx bat’ eta ‘Kristalezko bola berezi bat’. **Testuak:** Toti Martinez de Lezea. **Marrazkiak:** Eider Eibar, Marimar Agirre, Idoia Beratarbide, Cristina Fernandez, Iñaki Hidalgo eta Jorge Madejon, Jose Angel Lopetegí, Concetta Probanza eta Estibalitz Jalon. **Bilduma:** Bazen Behin. **Orrialde kopurua:** 16na orrialde. **Argitaletxea:** Erein.

irakurleak eskuetan liburua baldin badu. Hain zuzen, horregatik bururatu zitzaidan istorioak formatu honetan idaztea edo kontatzea, ipuin kontalariak eskuak libre izan ditzan, eta, beraz, ipuinak behar bezala kontatu ditzan.

**Irakurtzeko hainbat modu eskaintzen ditu formatu honek, ezta?**

Bai, hala da, aukera asko ematen ditu: ipuina irakurri egin daiteke, irakurri eta ikusi edo ikusi baino ez. Irudimen handia duen haurrak ikusitakoarekin istorio berri bat asma dezake. Irudimen handirik ez duenak, berriz, istorioa irakur dezake, eta kito. Ikusten dutena kontatzen animatuz ditzakegu haurrak, edo entzun eta ikusitakoaren inguruan pentsatzen. Ipuinak kontatzeko joko eta aukera asko ematen duen bilduma da.

**Elkarren antz handirik ez duten istorioak dira.**

Askotariko ipuin eta istorioak kontatzen dira; oso bestelakoak. Guztiak dira laburrak, baina sakonak, hainbat mezu helarazten baitituzte. Ez dute moralkeriarik, baina mezu inplizituak daude istorioetan.

**Istorioguztiak zureak dira, baina ipuin bakoitza marrazkilari batek ilustratu du.**

Hori da. Ipuin guztiak nik asmatu ditut, baina apaindu, marrazkilari bakoitzak bana apaindu du. Lan zoragarriak egin dituzte, eta oso gustura nago emaitzarekin eta bildumak hartu duen itxurarekin. Itxuraz oso-oso bestelako ipuinak dira bilduman biltzen direnak.

**Zer-nolako harrera izan du bildumak?**

Durangon, Erein argitaletxearen mahaira etortzen ziren haur gehienak Nurren bila zetozten. Dena den, Bazen Behin bildumako hainbat ipuin ere saldu ginen. Orain, ikusi egin behar da irakurleen gustukoa den eta zein den gehien gustatu zaien ipuina... Oraingoan, irakurri dituzten irakurleek oso politak direla esan didate. Hori zen asmoa, eta oso pozik nago.

**Toti Martinez de Lezea**  
IDAZLEA

«Ipuinak kontatzeko aukera asko ematen duen bilduma da»

Aspaldi-aspaldian, ez zen libururik Euskal Herriko etxeetan, eta kondairak eta ipuinak suaren bazterrean kontatzen ziren. Tamalez, istorioak ahoz kontatzeko ohitura itzaltzen doa pixkanaka. Maiz, liburuak irakurtzen dira, bai, baina ez dira istorioak kontatzen. Izan ere, liburua esku artean izanik, zaila da istorio bat behar bezala adieraztea eta interpretatzea. Eskuak libre izan eta istorioa behar bezala kontatzeko, bilduma berezia sortu dute Toti Martinez de Lezea idazleak eta marrazkilari kuadrilla batek: Bazen Behin. Erein argitaletxeak argitaratu du bilduma.

**Nur bildumaren hamargarren liburuaz gain, bilduma berezia aurkeztu duzu Durangoko Azokan?**

Bai, *Itahisa* helduentzako eleberriarekin eta Nurren hamargarren abenturarekin batera, bilduma berezi bat aurkeztu dut gáztetxoenentzako: Bazen Behin. Jende ugari gerturatu zen Erein argitaletxearen erakusmahaira, eta liburuak sinatu eta sinatu ibili nintzen.

**Bilduma berezia da, ezta?**

Bai, itxuraz ez dira ohiko liburuak Bazen Behin bildumakoak. Mahai gáinean jartzen diren liburuak dira. Zabalik daudenean, marrazkiak ikusten dira, alde batetik, eta testua, bestetik. Hala, ipuinak kontatzeko unean, entzuleek marrazkiak ikusten dituzte, eta irakurleak testua irakurtzen du liburuaren atzeko aldean. Kontalariak ipuina irakurri egiten die entzuleei, eta entzuleek ipuina entzun eta ikus-

ten dute. Hala, mugimenduak egiteko eta gauzak adierazteko askatasun osoa du kontalariak.

**Nolatan bururatu zitzaizun istorioak formatu horretan aurkeztea?**

Azkenaldian haur eta gáztetxoei ez zaizkie istorioak kontatzen, irakurri egiten zaizkie edo liburuak ematen zaizkie eurek irakur ditzaten. Horrez gáin, badira irakurleak oraindik irakurtzen ez dakitenak. Gainera, gárai batean, XX. mendeko arte, ipuinak edo istorioak kontatu egiten ziren, ahoz aho. Ohitura hori gáltzen ari da, tamalez. Gainera, ipuinak irakurri egiten dira, eta ez dira kontatzen, ipuinak behar bezala kontatzeko, adierazteko eta irudikatze eskuak libre eduki behar baitira, eta hori ezinezkoa da

